


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Euskal-dantzak, oholtzan, Urkiren eskutik

Aurreko igandean emanaldi nagusia egin zuten Bastero Kulturgunean. Ekitaldian, gainera, Karmen Rodriguez Ranz eta Pili Jimenez omendu zituzten / 16

AIURRI

XX. Urnieta Erromerian

Lanketa bereziak bere fruitua eman zuen: jaialdia gogoangarria izan zen / 8-9

Gazte Festak: Poxta Zaharreko Unai Iraola Uribarrena eta Maialen Kortajarena Garciari elkarrizketa / 14-15

Ur-parkea irekiko dute, ostiral honetan, Etxeberrietako Miranda pasealekuko parkean / 16

**ANDOAINEN EUSKARA
INDARBERRITZEKO**

AROA



Herritarrei irekitako 2 saio egingo dira euskara plana diseinatzeko:

Ekainak 2, 17:30
Bastero kulturgunea

Ekainak 17, 17:30
Urigin kulturetxea

Izena eman:

https://labur.eus/Aroa_Andoain

edo

euskara@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA

NIRE USTEZ

XABIER LASA ANDOAIN

San Juan jailetako pregoilari izateko SAPAren hautagaitza

San Juan jailetako pregoilaria izendatzeko proposamena herritarroi luzatu zigutenean, tentatuta egon nintzen SAPAko eta Real Sociedadeko buru Jokin Aperribay Bedialaunetaren izena hautas-kutxan sartzeko. Betetzen dituelako proposamenak egiteko udalak jarritako zenbait baldintza.

“Udalerriarekin lotura”ren irizpideari dagokionez, Soralezeko Placencia de las Armas enpresak 1936ko irailean Andoainen kokatu zituen bere instalakuntzak. 80 urte egin ditu bertan, eta horietatik asko, Aperribayk gidatuta. Andoaingo makina bat herritarrentzat lantokia izan da, eta familientzat sustengu ekonomikoa.

Bestetik, hautagaiak beteko lituzke beste zenbait baldintza: “tokiko komunitatearen aitortza izatea”, “Komunitate sentimendua” pizten laguntzea, eta “gizarte-kohesioa indartzea” alegia. Ikusi besterik ez dago Aperribayk gidatutako Real Sociedad kirol elkarte anonimoak nola lortu duen milaka eta milaka andoaindar eta gipuzkoar pozez eta emozioz gainezka jartzea, eta ahaidetasun kolektiborik handienez, bat eginda jartzea, izan ideologia batekoak izan bestekoak.

Ez nuen aurrera egin hautagaitza horren

proposamenarekin. Zergatik ez, bada? Gizartearenganako ironia kritikoa izan nahi zuena, gaizki ulertua izan zitekeelakoan, eta egiazko arriskua izan zitekeelako hautatua izatea, ikusita Realak ekarri digun “ongizate emozional eta zoriontasun kolektiboa” zenbaterainokoa izan den.

Kontuak kontu, azkenik, hautagaiak aurkezteko epea amaitu, eta jakin dugu proposatu zirenen norbanakoen eta herri elkarten zerrenda; eta egia esanda, poztekoa izan da. Guztiek merezi dute aitortza, Andoainen herrigintzan eta kulturagintzan ekarpen baliagarriak egin izan dituztelako, eta jarraitzen dutelako egiten. Eta esan beharrik ez dago azkenean guztien artean hautatu duten pertsonak ere, ondo irabazia daukala protagonismoa 2026ko San Juan jailetan, herri musikagintzan egin duen lan altruista itzelagatik.

Nigan bizitutakoak, nolana ere, ondoeza eragin dit. Ondoeza, pentsatze hutsak Aperribay izan zitekeela pregoilaria, eta pentsatze hutsak naturaltasun osoz, eta poztasunez, hartuko zuela Andoaingo giza-talde handi batek, ziur-ziurrenik. Ondoeza, ikusita nola daukagun normalizatuta Kataluniako Centre Delàs

D'Estudis Per la Pau elkarteko Max Carbonellek eta Gasteizkoak kolektiboko Antonio Escalantek –Basteron, 2025ko abenduan– egin ziguten erradiografia Aperribayk gidatzen duen SAPA enpresaren gainean.

Munduko gastu militarra, armagintza, enpresen finantzazioa eta armen merkataritza, nazioarteko gatazkak... 25 urte ikertzen daraman Kataluniako elkarteko ikerlariak begirada Euskal Herrian finkatu zituenean, datuak eskuetan, zera adierazi zuen: “bertan egoitza, bulegoak, jarduna... dauzkaten 45 arma-enpresetatik, bederatzik Israelekin badaukate harremana. Horien artean, SAPA aipatu beharra dago. Tess Defence enpresen partzuergoko kidea da, eta milaka milioiko kontratuko VCR Dragon karro-blindatuaren proiektuan sartuta dago. Ekoizpena Espainiako enpresei dagokien arren, Israelgo industriarekin elkarlanean ari dira”.

Dena esatera, 1936ko irailean Andoaingo lurretan instalatu zenetik faxisten kolpe militarri eta ondorengo 40 urteko diktadurari laguntza militarra eskaini zion enpresak, Franco hil geroztik ere segi izan du bere “ekarpen komertziala” egiten giza-sarraskiak eragiten dituen munduko gerren panoraman,

eta segitzen du egiten. Esate baterako, AEBren konplizitatearekin, Israel Palestinan burutzen ari den genozidioan, lehen aipatu bezela. Gauzak horrela, bada garaia euskal gizarteak bere baitan dauzkan sakoneko kontraesan horiek zintzo kudeatu ditzen, eta erantzukizunak onartu, galera ekonomikoen irizpideak albo batera utzita, baldin eta sinesten badugu giza eskubideak (guretzat eta munduko beste edozein gizakientzat) oinarri dituzten etikan da bizikidetzan.

Alde horretatik, konparazio batera, ez da inondik ere giza legezkoa eta onargarria SAPAri bezala, CAF enpresari ere erabateko babes instituzionala ematea, Gipuzkoari eta gipuzkoarri izugarrizko onura ekonomikoak eragiten dizkion aitzakiapean.

Egunotan bete dira 78 urte hasi zela Palestinarren hondamendia, Israelgo estatuak eta bere milizia sionistek Nakba edo inbasio eta kanporatze kanpainari ekin ziotenetik. Geroztik, etengabea da giza-sarraskia, telebistaz erretransmititu digute genozidioa Israelek akabatzea lortu ez dituen kazetari bakanei esker, batik bat.

Ez da politikoa profesionala edo nazioarteko gaietan aditua izan beharrik, nahikoa da gutxieneko sentiberatasuna eta

zentsumenen izatea, Jerusalemgo tren arina Israelgo gobernuaren lurren lapurretan eta segregazioan oinarritutako sistema kolonialistaren parte dela ulertzeko, eta proiektu horretan parte hartzen duten enpresak kolaboratzen ari direla Palestinarren aurkako apartheidean. Gogoan hartzekoa da, esate baterako, 2025eko irailean, CAF sartu zutela Israelen asentamenduetako jardueri lotutako enpresen Nazio Batuen datu-basean, genozidioa gertatzen ari den bitartean etekinak pilatzen ari diren enpresen zerrendan, alegia.

“Netahaynera da genozidioaren ardura, ez beste inorena. Gure etxean bilatzen baditugu han gertatzen ari den genozidioaren ardurak, etxekaltean gabiltza erabat”. Halaxe entzun diogu Eider Mendoza Gipuzkoa Foru Aldundiko diputatu nagusiari berriki (Euskadi Irratian, 2026/04/15ean, Faktoria saioan). Era horretan, zera ulertu behar ote dugu, 1949an jaio zen Benjamin Netanyahu dela sionismo inperialista eta hiltzailearen erantzule bakarra? Demagun gizona bihar hiltzen dela. Orduan, akabo arazoa? Jada ez genukeen zertan eskatu beharko “egia, justizia eta aitormena”, NBEnen irizpideei jarraiki?

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urmietak).
Diseinua: Golenia / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:  ALJATUAK:  TOKIKOM 

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA

Amaitu dira A15eko konponketa-lanak

Urte luzez eraberritze lanetan aritu ostean, akabo gurutzebidea: A-15 errepideko tunelak eragozpenik eta "bypass"ik igaro daitezke. Egokitzapen lan horietan 95 milioi euroko inbertsioa egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Erredakzioa ANDOAIN

"Tunel seguru, jasagarri eta adimendunak" dira orain, nazioarteko araudiak eskatzen duena. Kosta da, baina kitto. Amaitu dira lanak. Puntako instalakuntzak ditugu, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oharrari erreparaturata: "egindako hobekuntzei esker azpiegitura aurreratu, adimendun eta jasagarriagoa da Belabietako tunela bera (1.836 metro luze eta multzo osoko luzeena), eta baita Gipuzkoako A-15eko gainerako hirurak ere. Segurtasun arloari dagokionez, 150 kamera inguruko sistema bat instalatu da, ikusmen- eta adimen-artifizialez hornituak, tunelak eguneko 24 orduetan monitorizatzen dituztenak eta intzidentziak denbora errealean detektatzeko gai direnak, erantzuteko protokoloak automatikoki aktibatuz, suertatuz gero. Hori guztia departamenduak Donostiako Miramonen duen kontrolgune berrituan kudeatzen da".

Egokitzapen lanotarako 95 milioi euroko inbertsioa egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eider Mendozak ostiralean egindako agerraldian adierazi zenez, "horri esker, lurraldearen zako funtsezko den azpiegitura horretan maila handieneko



Aurreko ostiralean egin zuten agerraldia, A15 errepidean bertan. ALDUNDIA

segurtasun sistemak ezarri dira, jasagarritasuna hobetu da eta puntako teknologia txertatzeko ahalegin nabarmena egin da".

"Lehiakortasunaz eta mugikortasunaz hitz egiten dugu etengabe, baina errepide sare eraginkor, moderno eta segururik gabe, hori ez da posible", erantsi zuen Mendozak, alboan Felix Urkola Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatua zuela.

Lanen ibilbidea

2018 Tunelak berritzeko lanak hasi ziren, San Lorentzoko tunela birgaitzeko lanekin. 2019ra bitarte.

2021-2022 Belabietako tunelaren Iruñerako noranzkoko hodian jardun zen.

2023-2024 Gorosmendiko tunela (Iruñerako noranzkoa) eta Oindolarreko tunela (Donostiarako noranzkoa) berritu ziren. Oindolarreko eta Gorosmendiko bi tunelen kontrako noranzkoetan 2024ko irailaren amaieran hasi ziren jarduketak, eta iazko udaberriari jarri ziren martxan.

2025 Udan Belabietako tuneleko lanak, Donostiarako noranzkoan. Eraldaketa integrareko prozesua amaitu da, egunotan.

KOMUNITATEA

ONDARRETA HERRI ESKOLA ANDOAIN

Ikasturte amaierako festa

Datorren larunbatean, maiatzak 30ean Ondarreta Herri Eskolak berriro ere ikasturte amaierako festa ospatuko du. Goizean bertsolariak eta ziklo desberdinetako ikasleen abesti eta dantza emanaldia izango da. Era berean pintxo, tortilla eta postre dastaketa, tailer ezberdinak eta Leizarango ikasleen bigarren eskuko azoka antolatuko dituzte. Eguerdian guraso, ikasle eta irakasleen bazkaria izango da patioan eta arratsaldean festak jarraipena izango du, besteak beste, puzgarriekin.



Larunbatean da festa. ONDARRETA



AIURRI

Hitzordu berria, ekainaren 8an

Andoaingo Pentsiodunen Mugimenduko kideek Goikoplazan elkarretaratzea egin zuten, astelehenean. Europako joera deitoratu zuten, zeinean estatu askotan aurrekontuak osasungintza, hezkuntza eta pentsioak murrizteko eta armagintza hazteko bideratzen ari diren. Pentsio duinen alde, ekainaren 8an egingo dute hurrengo bilkura.

Egunean Behin jokoaren 21. denboraldia hemen da!

AIURRI  egunean behin  TOKIKOM LIGA 

Animatu eta batu zaitez Tokikom Ligako  AIURRI taldera
(maiatzaren 11tik aurrera, aplikazioko zure abatarrean klik egin)

KOMUNITATEA

BETERRI BURUNTZA GARAPEN AGENTZIA BETERRI-BURUNTZA

Gogoetarako eta inspiraziorako gunea



Eskualdeko sei emakume erreferente elkartu zituzten mahai-inguruan. BETERRI BURUNTZA

ASPEGIK KONEKTATUZ, elkarteak Beterrri-Buruntza Mankomunitatearen, Laboral Kutxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin bultzatutako gogoeta- eta inspirazio-gunearen edizio berri bat egin zuen, emakumeen talentua ikusarazteko eta lurraldeko eskualdeetara hurbiltzeko.

Jardunaldia maiatzaren 21ean izan zen, Astigarragako Erribera Kulturgunean, eta Beterrri-Buruntza lurraldean jarri zuen arreta. Topaketan 70 pertsona baino gehiago bildu ziren esperientziak partekatze eta tokiko eremuan emakumeen lidergoari, ekintzailetzari eta talentuari buruz hausnartzeko.

Bertan izan ziren Unai Andueza Iraeta Ekonomia Sustapen eta Proiektu Estrategikoen diputatua, Miren Elgarresta Larralde Emakundeko zuzendaria, Maribel Vaquero Montero EAJ-PNVk Diputatuen Kongresuan duen bozeramailea, Beterrri-Buruntza Mankomunitateko

lehendakaria, Patxi Ibarguren, eta lehendakariordea, Jose Mari Iparraguirre, zein hainbat udalerritako ordezkariak.

Mahai-inguruan, Nerea Basurto Arraztio buru zela, eskualdeko sei emakume erreferente bildu ziren:

- Eider Manso Garmendia, pertsonen garapen eta ongizateko kudeatzailea Bexen Medicalen eta Ferdoux Estrukturasen.
- María Magdaleno Fernández, Magdasstudio eta Neboa Home-ren sortzailea.
- María Herrero Eizmendi, Herrekor-eko gerentea.
- Norexis Carilin Orellanas Araujo, Chimeneas Erre Berriko bazkidea.
- Silbia Roson Goikoetxea, Laboral Kutxak Hernanin duen bulegoko zuzendaria.
- Sonia Valor Cuadrado, Baihome Higiezin Zerbitzuen sortzailea.

Parte-hartzaileek beren ibilbide profesionalak, beren sektoreetan aurre egindako erronkak eta emakumeen lidergoari buruzko ikuspegia partekatu zituzten, eta

Gipuzkoako enpresa-sarearen barruan laguntza-sareak eta gertuko erreferenteak sortzearen garrantzia nabarmendu zuten. Hala nola, ondorengotza prozesua, ekintzailetasuna, industria enpresa familiarren ondorengotza, talentuaren ongizatea, industriari berrikuntza, eta migrazio prozesu baten ostean gure lurraldean integrazioa izan ziren hizpide.

Topaketa networking gune informal batekin amaitu zen, bertaratutako eta hizlarien artean ideiak eta esperientziak trukatzeko aukera eman zuena, giro hurbil eta parte-hartzailean.

ASPEGIK bereziki eskertu zuen Laboral Kutxaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beterrri-Buruntza Mankomunitatearen babesa, bai eta bertaratutako pertsona guztien parte-hartze aktiboa ere, Konektatuzen edizio hau Beterrri-Buruntza gune inspiratzaile eta aberasgarri bihurtzen lagundu baitzuten.



Azken saioa Zumeatarra elkartearen egin zuten. AIURRI

Kulturartekotasuna, sukaldaritza bidelagun hartuta

Su-Artean, Gure-Artean ekimenaren edizio berriari amaieran eman zioten aurreko astean

Xabier Lasa ANDOAIN

Sukaldea ardatz hartuta, mahai-aren bueltan dastatu ohi dira mundu zabaleko plater tipikoak. Ikasturteko azkena izanik, sukaldari lanetan ibilitakoak omen- du zituzten. Sukaldarien zerrenda, jarraian: Jashanpreet Kaur, Massiel Reyes, Miren Erkizia, Pepe Iparragirre, Kelly Patiño, Maris Stephen, Elisabet Gallo,

Nora Slimani, Marcela Morales, Sebas Bianchi, Itziar Aranberri, Garikoitz Azpiazu, Ibtissam El Karimi, Amarilis Cepero, Luisi Roig, Leirer Zubillaga, Soad Zannouti, Sekinatu Samorie, Mariame Lahssini, Itziar Asensio, eta, Asier Lopez de Arregi. Haiek batera, azken saioa laguntzaileak: Bianchi Gaston familia eta Zumeatarrako Iker Ipintza.



Sebas Bianchi, Lola Boluda, Lorea Senperena eta Asier Lopez de Arregi. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz

AGERRALDIA

TXOSNA BATZORDEA URNIETA

Elkar ikusiko dugu txoznetan!



Txosna Batzordeak agerraldia egin zuen, aurreko ostiralean. AIURRI

Jakingo duzueenez, 2025eko udan Txosna Batzordeak eta herriko hainbat eragileek planto egin eta txoznarik ez jartzea erabaki genuen, hauek arautzen zituen ordenantza onartezina zelako. Erabaki hau ez zen bat batekoa izan, denbora luzean zehar udalaren jarrerak sortutako blokeo egoera eta gauzak aldatzeko borondate ezak bultzatua baizik. Egoera salatu eta erabakia publiko egin ostean, udalak aldebakartasunez harremana haustea erabaki zuen, eskatzen genuen bilera oro baztertuz. Bestalde, Udal Gobernutik eta EAJ-PNV-ren partetik akusazio faltsu eta difamazio kanpainak jasan behar izan genituen.

Egoera tentso hau bizitzen ari ginen momentuan, Udal Gobernuak bitartekaritza enpresa bat kontratatzea erabaki zuen, eztabaida hau kudeatzeko ezintasuna agerian utziz. Prozesu luze honek, batetik, diru publikoaren xahuketa zentzugabea ekarri du. Bestetik, gure lan militantearen zati bat honi bideratuta izatea: soldata batetik harago doan denbora eta sakrifizioa.

Azken finean, hainbestetan parte hartzea sustatzearen ideia zabalitzen badute ere, errealitatean guztiz kontrakoa da. Benetazko parte hartze prozesuak, herriaren errotik ateratakoak, zapuztera eta oztopatzerara bideratu dituzte haien indarrak.

Hilabete hauen ostean, aurrera eramandako borroka honek bere fruituak eman ditu, eta txoznen ordenantza bertan behera uztea lortu dugu. Honen ordezkari guk eskatzen genituenak biltzen dituen hitzarmen duin bat sinatzea ere. Akordio honek Txosna Batzordea zilegiztatzen du eta, besteak beste, txoznagunearen kontrola eta kudeaketa esleitzen digu, hasieratik eskatu dugun bezala. Herriaren borondatea errespetatuz.

Txosna Batzordea osatzen dugun eragileok sinisten dugun lan egiteko moduan. Aisialdian bezela, bizitzako beste gainontzeko arlotan ere.

Izan ere, ezin dugu onartu Udal gobernuaren prozesu honen gaineko irakurketa; parte hartzeari gorazarre egitea hauteskunde aurreko ondo neurtutako zuriketa lana dela argi dugu. Hipokrisiaz

jantzitako hitzak. Ezin degu bestela ulertu Gaztetxea bezelako herri ekimena suntsitzea eta alternatibarik ez eskeintzea. Edo orain arteko legealdian Txosna Batzordea edo beste hainbat eragileekin izan duen jarrera ezkorra eta autoritarioa.

Zaila zirudien arren gure helburuetako asko lortu ditugu, antolakuntza eta konpromisoaren bitartez baldintza hobekak ditugu orain. Hasieratik genuen ideia indartzen du honek, borrokatzeak merezi duela! Hemendik aurrera ere beharrezkoa den momentuetan berdina egingo dugu.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuegu borroka hontan parte hartu eta babestu gaituzuen norbanako zein eragileei, borrokarik gabe ez litzatekelako hitzarmen duinik egongo. Bestalde, hasieratik aldarrikatu dugun bezala, Txosna Batzordea irekia da eta eragile orori bertan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi diogu.

Besterik gabe, aurtengo Samieletan, elkar ikusiko dugu txoznetan!

Gora Urnieta!

Gora Txosna Batzordea!

OHARRA

URNIETAKO UDALA URNIETA

Sanmieletan txosnak egoteko akordioa

Azken hilabeteetan Udalaren eta Txosna Batzordearen artean Gizagune Fundazioaren esku-hartzearekin egin den bitartekaritza-prozesuak bere fruituak eman ditu, eta bi aldeen arteko lankidetzak akordio batean gauzatu da.

Udalak eta Txosna Batzordeak akordio hori lortzeko lan egin dute, sentsibilitate eta ekarpen desberdinak kontuan hartuta, elkarriketatik abiatuta oinarri partekatatu bat eraikitzeke helburuarekin.

Prozesu horren ondorioz, txosnetako espazioaren funtzionamendua arautzen duen akordio bat formalizatu da, etorkizunari begira egonkortasun-esparru bat eskainiz, elkar ulertzean eta elkarrekiko errespetuan oinarritua.

Horrela, espazio kultural eta sozial hori berreskuratzen da, jai anitzak, irekiak, inklusiboak eta parte-hartzaileak bultzatzen jarraitzeko borondatearekin.

Urnietako Udalak eskerrak eman nahi dizkie prozesuan parte hartu duten eragile, elkarte eta herritar guztiei, eta bereziki azpimarratu nahi du haien jarrera eraikitzailea.



AIURRI

Egunean Behin, bigarren astea

Tokikom Ligako bigarren astean, Aiurri (Beterrri-Buruntza) taldeko partaideen artean, zozketa egin da eta irabazlea "Mariaje" lasartearra izan da. Dagoeneko jaso du Altuna sagardo-botila sorta, Aiurrikoen eskutik. TOKIKOM Ligak uztailearen 12ra arte iraungo du, eta bitarte horretan edozein momentutan eman daiteke izena nahi den Aiurri taldean.



Urnietako
udala

KOMUNITATEA

EAJ-PNV ANDOAIN

Propaganda asko eta egindako lan gutxi

Andoaingo EAJ-PNVk gaur EH Bilduren udal gobernuaren kudeaketa ekonomikoaren porrota salatu du, 2025eko aurrekontuaren likidazioa aztertu ondoren. Datu horiek EH Bilduren kontakizun triumfalista deseraikitzen dute eta agerian uzten dute paralisia, inprobisazioa eta gobernatzeko gaitasun falta.

EH Bilduk urteak daramatza anuntzioetatik, argazkietatik eta titularretatik bizitzen. 2025eko likidazioak erakusten du herritar askok kalean dagoeneko sumatzen dutena: propaganda asko eta emaitza oso gutxi.

EAJ-PNVren arabera, datuak benetan larriak dira. Udalak 2025 urtea 54,2 milioi euroko behin betiko aurrekontuarekin itxi zuen, baina 30,1 milioi euro baino ez zituen exekutatu; hau da, aurrekontuaren %55 soilik.

EH Bilduk paperean udal erraldoi baten irudia saltzen du, baina gero ez da gai diru hori Andoaingo benetako hobekuntzetan bihurtzeko. Bere gaitasunen gainera aurrekontuak egiten dituzte, bete ezin dituzten espektatibak sortzen dituzte eta udal kudeaketa propaganda ariketa iraunkor bihurtzen dute.

Inbertsioena da udal gobernuaren gaitasun falta gehien agerian uzten duen



Goenaga eta Ruiz. EAJ-PNV

esparrua. Inbertsioetarako aurreikusitako 23,7 milioi euroetatik, EH Bilduk 3 milioi baino ez zituen gauzatu; %12,6 eskasa. Datu eskandalagarria da. Inbertsioetarako aurreikusitako hamar eurotik bederatzi gauzatu gabe geratu dira. Iragartzen dituzten proiektuak aurrera ateratzeko gai ez den udal gobernu baten froga argia da.

EAJ-PNVk salatu du, halaber, Udalak aurreko ekitaldia erabili gabeko 24 milioi euroko kredituarekin itxi izana; horietatik 17 milioi euro maileguari dagozkio. 24 milioi euro paralizatuta izatea ez da arrakasta bat. Blokeatutako eta gauzatzeko gaitasunik ez duen gobernu baten sintomarik agerikoena baizik. Dirua geldirik edukitzea proiektu garrantzitsuak aurrera egiten ez duten bitartean arduragabekeria politikoa da.

Bereziki esanguratsua da EH Bilduk udal aurrekontua ia bikoiztu izana —hasierako 27,9 milioietatik 54 milioi euro baino gehiagora—, gero erdia pasatxo baino ez exekutatzeko. Aurrekontuak puztea gero ez betetzeko, ez da gobernatzea. Kea saltzea da. EH Bilduk iragarkiak egiten badakiela erakutsi du. Oraindik ez digu erakutsi zorrotz kudeatzen ba ote dakien.

EAJ-PNVtik salatzen dugu udalerriko hiru proiektu estrategiko nagusien geldialdia. Gauzatzen ari ez den mailegu bat dugu, ixten ez diren proiektu tekniko batzuk eta obrak errealitate bihurtzeko gai ez den gobernu talde bat. Legegintzaldi honetan Andoaingo arazo nagusiak konponduko zituztela ziotenek ez dira gai izan obrak hasteko ere. Erritmo honetan, ez kiroldegiak, ez Illarramendik, ezta liburutegi berriak ere ez dituzte lanak agintaldia amaitu aurretik hasiko. Lau urte igaro izango dira lehen hondeamakina sartu gabe.

Andoainek udal gobernu serio, zorrotz eta eraginkorra merezi du. Propaganda politikoa gutxiago eta lan gehiago merezi du. Gobernatzea ez baita promesak egitea. Gobernatzea betetzea da. Eta EH Bilduk berriro erakutsi du ez dela emandako hitza betetzen ari.

KOMUNITATEA

EH BILDU ANDOAIN

Nazio Elkarrizketa, Andoainean

Euskal Herriko eta Andoaingo ahulgune eta indarguneen inguruan iritziak bildu nahi ditu Andoaingo EH Bilduk, galdetegi baten bitartez.

Badira zenbait hilabete Nazio Elkarrizketa abian dugula, entzute aktiboko, kontrasterako eta eraikuntza partekatuko prozesu kolektibo handi bat. Euskal Herria mailan ez ezik, Andoainean ere, lan isilaren bitartez, diagnostiko partekatutako adostu eta herri-proiektu komun bat eraikitzea du helburu egitasmo honek.

Izan ere, une historikoa batean bizi gara, eraldaketa sakonek —ekonomikoak, sozialak, teknologikoak eta ekologikoak— eta egungo autogobernu esparruen agorpenak zeharkatutakoa. Koiuntura horrek erronka nazional historikoa planteatzen du, eta eskala handiko erreakzioa, bultzada berria eta eraldaketa nazional berria eskatzen dituena. Eskala handiko erreakzio hori Euskal Herri mailakoa izan behar du, eta hor, gure ekimena eta gure indarra egin behar dugu Andoaindik ere.

Horregatik, gizarte-eragileekin edota erreferentziazko pertsonekin egiten ari garen bilera errondaz gain, andoaindarren iritzia ere bildu nahi dugu horretarako osatu dugun galdeketa baten bitartez. Euskal Herriko eta Andoaingo indarguneek eta ahuleziez hitz egitea nahi dugu, diagnostiko ahalik eta erreala osatu asmoz. Galdeketa hauek kalean jarriko diren jaima-tan bete ahal izango dira, ondorengo egun eta tokietan:

- Ekainak 2, asteartea. 11:00-12:30, Makaldegia inguruan.
- Ekainak 4, osteguna. 17:00-18:30, Kai-mutur inguruan.
- Ekainak 6, larunbata. 11:00-12:30, Juanita Alkain plazan.

Nazio Elkarrizketa helmen handiko ariketa demokratikoa izatea nahi dugu, gure herriaren adimen kolektiboa aktibatuta nahi duena. Entzun, partekatu eta adostu nahi dugu, guztion artean bakarrik eraiki ahal izango dugulako herri proiektu sendo bat eta, anbizioz eta lasaitasunez, aurrean ditugun erronka handiei erantzun ahal izango diegulako. Horregatik, andoaindar guztiak animatzen ditugu galdetegi hau bete dezaten.

Eskaneatu QRa edota sartu honako loturara: <https://labur.eus/nazioelkarrizketa>.



Nazio
Elkarrizketa

ehbildu

Aldizkaria banatu du herrian Andoaingo PSE-EEK

Gabeziak antzeman eta proposamenak bildu ditu, herritarrekin harreman zuzena izan asmoz

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo PSE-EEK aldizkari bat banatu du. Bertan, hainbat esparrutan (etxebizitza, auzoen hobekuntza, zerbitzu publikoak eta jasangarritasuna) garatutako proposamen nagusiak jasotzen

dira. "Aldizkarian sozialisten proposamenak jaso ditugu, hala nola Gabriel Arestiren birmoldaketa, Arrate plaza, Erretiratuen Etxea eraberritzea, gazteentzako alokairurako laguntzak handitzea eta aparkalekuak sortzea.

Zoritxarrez, ez dira egia izango, EH Bilduk kontra bozkatu duelako", adierazi du Alkain bozeramaileak. "2026an argitara emango diren ekimenak ere sartzen ditugu, sozialisten lanari esker, hala nola bidezaintzako kamera gehiago jartzea, kalendarriaren kirol-parkea edo dola perinatalaren memoria".

PSE-EEK herritarrekin harreman zuzena izateko eta proposamenak "argi, hurbiltasunez eta konpromisoz" helarazteko borondatea berretsi duela dio.



Aritz Alkain, PSE-EEK bozeramaileak. PSE EE

"Euskara plana udalerrriarena da"

ARANTZA AGUADO ETA MARTA LASA ANDOAINGO UDALA, EUSKARA SAILA

Euskara Plan berria garatuko du Udalak eta, horretarako, bi saio ireki antolatu ditu: lehenengoan, erronka nagusiak adostuko dira. Bigarrenean, aldiz, ekintzak

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Zer jasotzen du normalean euskara plan batek?

Euskara plan batek normalean euskararen egoera hobetzeko beharrezkoak diren helburuak lortzeko ekintzak jasotzen ditu. Era berean, erronka horiek lortu diren edo ez neurtzeko neurgailu moduko batzuk ere zehazten ditu. Neurgailu horiek; erakunde batena, elkarte batena edota enpresa batena, izan daitezke. Gure kasuan, udalerrri oso batena egiten ari gara. Denborari dagokionez, normalean 5 eta 10 urte bitartean irauten dute.

Plan berriak zer eduki beharko luke?

Oraindik egiten ari gara, eta ez dakigu oraindik ze forma hartuko duen. Egia da, EAEko udalerrien kasuan, Eusko Jaurlaritzak beti finkatzen duela plana egiteko marko bat. Oraingo Markoak Aroa du izen, eta hor jasotzen dira erronka nagusiak eta lanildoak. Baina, aldi berean, bakoitzak autonomia du batzuk edo besteak aukeratzeko.

Iaz bukatu zen gure aurreko euskara plana, eta hor adibidez, jasotzen ziren lanildoak familia bidezko transmisioa, irakas-kuntza, euskalduntzea eta alfabetaztea, etorri berriak, inguru

sozioekonomikoa eta hedabideak izan ziren. Oraingo kasuan, antzeko arloak landuko direla uste dut, baina egia da, Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen markoaren barruan abiapuntua desberdina dela. Abiapuntua da euskararen biziberritzea justizia ikuspegiren bitartez ulertzea. Hau da, justizia sozialtaz ezagutzen duguna. Euskara giza eskubide bat da, eta gizarte justua izateko euskara da elementuetako bat. Bestalde, erakunde eta eragile sozialen arteko lankidetzan indar handia jarri du marko estrategiko horrek. Hain zuzen ere, funtsezkotzat jotzen dute, erakundeak haien kasa bakarrik ez joatea, baizik eta, bidea eragileen eskutik egitea.

Alde horretatik, azpimarratu nahi dut aurrera eramango dugun plana ez dela Udalaren plana, Udalerrriarena baizik. Horregatik, hainbat elkarterekin eta norbanakoekin hitz egiten ari gara, planaren nondik norakoak zehazteko. Horrez gain, kontuan hartu behar da, euskara ez dela isolatuta egongo Udaleko politikan. Udalak garatzen dituen politika guztietan egongo da txertatuta. Esate baterako, enplegu planetan, kirol planetan etab.

Ezin dut gehiegi aurreratu, ez baitakigu plan berriaren lanildo berriak zein izango diren, baina seguruenik guretzat erronka nagusia pertsona etorri berriak gure hizkuntzara hurbiltzea izango da. Horretan pisu handia jarriko dugu.

Orain arteko lanketan, euskararen egoeraren irudia osatzea lortu duzuela adierazi duzue. Zerbait aurreraterik bai?

Oraindik mahaigainean daukagu. Elhuyar aholkularitza enpresarekin ari gara lanean, eta beraiek ari dira biltzen informazio guztia. Lehenik, online galdetegi bat sortu genuen. Guztira, 200 irizitiki gora jaso ditugu, nahiko aberatsa izan da. Hiru elkarrizketa egin genituen, hiru kolektibo ezberdinekin; lehenengoa, aisialdi eta kirol elkarteekin, bigarrena, etorri berriekin eta azkena, gurasoekin. Gure ustez, oso eremu interesgarriak ziren, euskararen egoera zein den jakiteko, eta egin beharrekoa zehazteko.

Emaitzak oraindik ez ditugu, hain zuzen, herritarrekin egingo dugun lehen saioan aurkeztuko ditugu. Hala ere, elementu batzuk errepiaktu daitezkeela direla uste dugu. Gaitasunari dagokionez, Andoainen oso parametro altuetan gabilitza, %70



Arantza Aguado, Udal teknikaria, eta Marta Lasa, Euskara zinegotzia. AIURRI

inguru, baina, erabilera ez formaletan asko jaisten da. Hori Euskal Herri guztian gertatzen den fenomeno bat da, eta hemen ere, azalduko dela uste dut. Baina, ez nago guztiz ziur, hurrengo astean ikusiko dugu ea sorpresarik dagoen.

Nor dago bilerara deituta? Irekia da ala eragileek hartu behar dute parte batez ere?

Bi saioak irekiak dira. Pentsatzen dugu errazagoa izango dela euskararen inguruan dabilztan eragileak erakartzea, baina berez, guztiz irekiak dira. Galdetegi bat jarri dugu martxan jakiteko ea aldi bereko interpretazioa beharko dugun ala ez, eta era berean, jendeak izena emateko. Hala ere, ez da ezer gertatzen jendea izena eman gabe etortzen baldin bada.

Lehenengo saioan, emaitzen aurkezpena egingo dugu, eta erronka nagusiak adostuko dira. Bigarren saioan, aldiz, erronkak zehaztu eta horietara iristeko aurreikusitako diren ekintzak diseinatuko dira.

Bilera horiek eta gero, zein izango dira hurrengo urratsak?

Oso gertu gaude bukaeratik. Hortik planaren zirriborro bat aterako da, eta planaren zirriborro hori partekatuko da eragile eta ordezkari politikoekin. Hortik aterako da behin betiko plana.

Nola baloratzen duzu Andoainen euskararen alde egiten dena? Berriki Eusfera pasa da, eta Andoainen lanketa handia egin da.

Guretzat Eusfera oso erreferente polita izan da. Udalak parte hartu duelako, baina parte hartzea "dendaostetik", izan delako. Bertan, hamahiru familiek parte hartu dute antolaketan Larramendi Bazkunak gidatuta, eta eskertzeko hitzak besterik ez ditugu. Beraiek eskaini digute haien denbora, haien ahalegina, esfortzua... Bukatu egin da, eta oraindik ikusten da gauza gehiago egiteko gogotsu daudela. Hori da helburu nagusia, herritarrek horrelako ekimenak bultzatzea eta Udala laguntzeko egotea.

Bi hitzordu ekainean

Andoaingo Udaleko Euskara Sailak deialdia luzatu du ekainerako. Honatx, zabaldu duten oharra: "Amaitu da Andoainen euskara sustatzeko 2020-2025eko plana eta urte honetan plan berri baten diseinuari heldu behar diogu. Horretarako egindakoaren balorazioa egiten ari gara eta plan berria osatzen. Planaren helburua da euskarak bizirik aurrera egitea, hiztun aktiboak lortu eta ugartzea. Euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun

hiztun kopurua igotzea da erronka, eta horrekin batera, komunitatea handitzea eta sendotzea.

Helburu hau, helburu kolektiboa den heinean, herritarren ahotsak ere entzun nahi ditugu eta, horretarako, martxoan abian jarri genuen ON-LINE GALDETEGIA hobeto ezagutzeko zeintzuk diren gure herritarrek euskararen bueltan duten iritzia eta irudia. Ikerketa horrekin jarraitzeko, apirilaren bukaeran, ELKARRIZKETA batzuk antolatu genituen hainbat arlotako eragile

eta herritarrekin. Entzun ditugun ahots guztiekin euskararen egoeraren irudia osatzea lortu dugu. Hemendik aurrera datozen urteotarako erronkak eta erronka horiek betetzeko ekintzak hautatu behar ditugu. Horretarako Diseinu-taldea sortu nahi dugu, hau da, herritar ezberdinek osatuko duten talde bat, forma emango diona datozen urteetako planari, gure herrian euskara sustatzeko beharrezkoak diren helburuak eta ekimenak erabakiko dituen.

Bi orduko bi lan-saio izango dira Elhuyar aholkularitzaren teknikarien laguntzaz:

- Ekainak 2, asteartea: 17:30-19:30. Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoa.
- Ekainak 17, asteazkena: 17:30-19:30. Urigain kulturetxea.

Animatu nahi zaituztegu parte hartzera, guztira 4 ordu baino ez dira eta bidea finkatuko duzue datozen urteotan Andoaingo euskara indarberritzeko.

Saio hauetan parte izan nahi baduzu, izena eman galdetegi honen bidez, https://labur.eus/Aroa_Andoain, edo mezua bidali euskara@andoain.eus helbidera.



Betiko gordeko den irudia, Plazido Muxika plazan. Taldeko argazkiaren ostean iritsi zena ederra izan zen. AIURRI

Luzaroan gogoratuko den ospakizuna

Atzoko eta gaurko Egapeko dantzarien egun handia giro ezin hobean ospatu zen, aurreko larunbatean. Biribila izan zen, beraz, Urnieta Erromerian jaialdiaren XX. edizioa

Jon Ander Ubeda URNIETA

Hilabeteetako lanaren eta entsegu-sortaren ostean, maiatzaren 23an, euskal dantzariak hitzordu berezia izan zuten Urnietan dantzaz, musikaz eta giro apartaz beteriko egitarauarekin. Goizetik bertatik, Ierdi plazatik hasita, dantzariak elkartuz joan ziren. Ibilbidean, Plazido Muxikara iristean, Egapeko dantzari guztien talde argazkia egin zen, egun berezi haren oroigarri gisa betiko gera dadin. Taldeka antolatuta eta, txikienetatik handienetara, dantzariak herriko kaleak alaitu zituzten. Eguerdian iritsi zen une gorena, hots, emanaldi nagusia. Koro Berasategik aurkeztu zuen eta dantza taldeko almatzer Edu Muruamendiarazek ere hitz batzuk egin zituen. Ezin



Koro Berasategi eta Edu Muruamendiaraz. AIURRI



aipatu gabe utzi Txanbolin eta Udal musika eskolako musikarien partaidetza. Bien bitartean, hitzartzeak egin bitartean, talde bakoitzeko arduradunek zapiak azkar batean banatu zituzten.

Jaiaren ikurretakoa izan zen hura. Egunak jarraipena izan zuen herri-bazkariarekin, plaza-dantzekin eta erromeriarekin. Aiurri.eus gunean jasota dago eguna, argazkiz eta bideoz.



Emanaldi nagusiari ekin aurretik kalejira egin zuten. AIURRI



Jaialdiaren bereizgarri den zapia jarri zuten San Juan plazan. AIURRI



Haurrak, gazteak, helduak... guztiak izan ziren jaialdiko protagonista. AIURRI



Plaza-dantzak, arratsaldean, Edu Muruamendiaren zuzendaritzapean. AIURRI



Jaialdiaren ezinbesteko osagarri dira musikariak. Taldean ageri dira plazan. AIURRI



Karmen Rodriguez Ranz omendu zuten unean. AIURRI

Merezitako aitortza

Karmen Rodriguez Ranz Urki dantza taldeko eragileetakoa omendu zuten aurreko igandean, Bastero Kulturgunean. Ekintzaile nekaezina, bigarren planoan egotea maite du. Hala, ezustean omendu zuten, urte hauetan guztietan egindakoa eskertu asmoz

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoain herri bizia da eta bizitasun hori hainbat norbanakori zor zaio. Horietakoa da Karmen Rodriguez Ranz. Irakaslea, ogibidez, erretiroa hartu zuen baina, halere, gizarte eta kultur mailako hainbat ekimenetan nekaezin jarraitu du lanean. Urki dantza taldean ibilbide oparoa osatu du eta ari dira partaide gazteagoak erreleboa hartzen. Urkiren ibilbidea ezin da Karmen Rodriguez Ranzetik bereiztu eta, hain zuzen, konpromiso horri aitortza egin zioten igandean. Bastero Kulturgunean izan zen, Urkiren ikasturte amaierako ekitaldian. Fokoak eta protagonismoak ez ditu batere maite, nahiago du bigarren planoan egon, baina egindakoa eskertzeko garaia bada, eta zer hobea Urkiren

ekitaldian egitea baino. Txalo zaparrada jaso zuen omenduak.

Karmen Rodriguezi bezala, Pili Jimenez diseinatzaile eta jostunari ere erakutsi zioten estimua, jaialdia amaitu berritan. Urteak daramatza jantzitegiak arduratzen eta agerikoa da alor hori zaintzea ere funtsezkoa dela dantza talde batean.

Bestalde, Lakuntzako Elai Alai dantza taldeko kideak ikusle gisa egon ziren Bastero Kulturgunean. Beren irakasle den Leire Sagartzazu oholtza gainean dantzan ikusi nahi izan zuten.

**PILI JIMENEZ
DISEINATZAILE
ETA JOSTUNA ERE
OMENDU ZUTEN
IGANDEAN**

Jaialdia bukatu ostean, gainera, oholtzara jaitsi eta Sagartzazuri lore-sorta eman zioten.

Dantza-sorta

Besteak beste, Makil Dantza, Sardinerak, Iturengo Soka Dantza, Abaltzisketako Txantxoan Dantza, Habanera, Kontradantza eta Arratia biziberritu zituzten igandeko emanaldian. Dantzariak Enaitz Vazquez, Fernando Gonzalez, Salba Parada, Mattin Zalakain, Irune Bueno eta Laida Bueno musikariak izan zituzten bidelagun jaialdian.

**LEIRE SAGARZAZUK
LORE-SORTA JASO
ZUTEN LAKUNTZAKO
ELAI ALAI TALDEKO
KIDEEN ESKUTIK**



Pili Jimenez, diseinatzailea. AIURRI



Leire Sagartzazu dantzaria, Lakuntzako Elai Alai taldeko kideekin batera. AIURRI



Urkiko dantzari gazteak eta helduak igo ziren oholtzara. AIURRI



Aiurri.eus gunean, argazki-bilduma eta bideo-sorta. AIURRI



Astigarragako Aiztondo abesbatza. AIZTONDO

'Mater Amabilis' kontzertua, Urnietan

Aiztondo Abesbatzaren kontzertua izango da larunbat honetan, Urnietako San Miguel elizan, 20:00etatik aurrera. Aleksandra Gladysheva sopranoa eta Iñaki Gezala pianoa jolea bidelagun izango ditu Astigarragako abesbatzak

Xabier Lasa ANDOAIN
Astigarragan, abesteko zaletasuna zuten hainbat herritarrek sortu zuten Aiztondo Abesbatza.

Euskal kanta herrikoiak izan dituzte oinarri geroztik, eta Udalarekin, txistulari eta dantzari taldearekin, Musika Eskolarekin

eta Astigarragako beste elkarrekin elkarlanean jardun izan du, bai herriko jaietan zein hainbat emanaldietan. Tartean,



Gladysheva. AIZTONDO



Gezala. AIZTONDO

Santa Zezilia, Santa Ageda eta abar. Abesbatzak beti izan ditu ipar bi helburu: Euskal Herriko kanta ezagunak, beste herrialdeetako folklorea, aro guztieta-ko kantak, etab. ezagutaraztea batetik, eta bestetik, herri bizitza sustatzea.

Urnietan luxuzko laguntzaileak izango dituzte.

Arroyo, zuzendaria

Aiztondo Abesbatzaz gain, Gipuzkoako hiru abesbatza zuzentzen ditu: Orioko Salatxo Abesbatza, Hernaniko Kantuz Abesbatza eta Donostiako Kantakietza Abesbatza.

Gladysheva, sopranoa

Aleksandra Gladysheva sopranoa errusiarrak, ikasle zela, Moskuko zein Bartzelonako hainbat operatan rol nagusiak interpretatzeko aukera izan zuen.



Gezala, pianojolea

Iñaki Gezala piano-jole hondarribiarrak, berriz, bere jaioterriko Musika Eskolan eta Irungo Udal Kontserbatorioan ikasi eta 2018an piano ikasketak maila gorenarekin amaitu zituen.

Arregi eta Udarregi

Alfabetatu gabea izanik bertsoak horman marrekin idazten zituen Udarregi bertsolari usurbildarra eta euskara noranahikoa izan zedin ahalegindu zen Rikardo Arregi pentsalari eta idazle andoaindarra hartu zituzten ahotan Usurbilen, joan zen maiatzaren 22n. Argazkian, Mendibururen eskulturaren, Ainara Mendiola, Ismael Manterola, Idurre Eskisabel, Ion Telleria. Jakoba Errekondo, Maialen Lujanbio, Agurtzane Solabarrieta Usurbilgo alkatea eta beste hainbat udal ordezkari, Andoni Alvarez Andoaingo alkatea, Mikel Arregi Rikardo Arregiren anaia, eta, Inotsi eta Hutsune Mendiburu Remigio Mendiburu eskulturgilearen senitartekoak.



'Pentagrama enea', gogoan

Antton Jauregi musika irakasleak sortu zuen 1995ean, ikasleei musika lengoiaia modu erakargarriaz lantzeko xedez. 2015ean, Urnietako Antzerki Tailerreko aktoreek ipuina taularatu zuten, Aizpea Goenaga eginiko egokitzapenean oinarrituta

Xabier Lasa ANDOAIN

Datorren ostegunean emanaldi bikoitza izango da Saroben, Lourdes Iriondo Musika Eskolaren ikasturte amaieraren kontzertu-sortaren baitan. 17:30ean, Musika Tailerreko ikasleek ikasturteari amaiera emateko emanaldia egingo dute. Ondoren, 18:15ean, "Pentagrama enea" berritua ikusteko aukera izango da.

Ipuin hori Antton Jauregi musika irakasleak sortu zuen 1995ean, musika lengoiaia modu erakargarri batez ikasleekin lantzeko. Geroztik, 2015ean, Urnietako Antzerki Tailerreko aktoreek "Pentagrama enea" ipuina taularatu zuten, Aizpea Goenaga eginiko egokitzapenean oinarrituta. Bideo hori ikusi ahal izango da Saroben.

Eta emanaldi bikoitza amaiturik, 19:15ean, Sanba badago taldeak kontzertua eskainiko du San Juan plazan.

'Pentagrama enea' egitasmoa, Jauregiren sorkuntza-lana

'Pentagrama enea' ipuinaren bitartez musikaren lengoiaierkin (notazioarekin) hasteko modu aktibo eta erakargarri bat da. Bideo desberdinen bitartez, ipuina eta lengoiaierkin hasteko prozedurak ikus daitezke.

Jauregik adierazi izan duenez, Lehen Hezkuntzan musika irakasten hasi zenetik, kezkarik handiena izan zuen nola irakatsi, modu erakargarrian, partitura bat irakurtzen, alegia. Horrela, 1995-1996 ikasturtean ekin zion Pentagrama Enea izeneko egitasmoari. Pentagrama Enea etxean pertsonaia batzuk (Fatali mamua, Mikel Minali, Solferino, Laxaro, Domingo Gorringo, Dotorea...) mugitzen diren pertsonaia batzuen (notak) gora behera kon-



Antton Jauregi, aste honetan, Sarobe antzokian. AIURRI



2015ean taularatu zuen antzezte-taldea: Angela Sanchez, Conchi Gonzalez, Esther Modia, Gentzane Belaustegigoitia, Isidro Salinas, Juankar Erasun, Julio Nogales, Koro Berasategi, Lupe Herrero, Pili Brandariz eta Xabier Odriozola. Yanire Juanikorena aktore laguntzaile lanetan aritu zen eta zuzendari lanetan, Mikel Agirregomezkorta. Ekoizpen lanetan: Pablo Lussarreta, Angela Sanchez, Enkarni Cuesta, Estitxu Villanueva eta Sarobeko lan taldea. AIURRI

datzen dira. Ipuin horien edukia zabaltzeko, webgunea (anjaritoi.wixsite.com/pentaenea) zabaldu zuen. Bertan, Pentagrama

Enea ipuinak, antzerkia, liburua eta pertsonai bakoitzaren gaineko bideoa biltzen dira. Antzerkiari dagokionez, esan behar



Urnietan zuzenean ariko dira ostegun honetan. SANBA BADAGO

Sanba Badago, ostegunean

Susi Elozegi, Hanni Insausti, Haizea Elizondo eta Iñaki Goenaga musikariek osatzen dute Sanba Badago musika taldea. Kontzertua 19:30ean hasiko da, ostegun honetan, San Juan plazan. Brasilgo doinuak entzungo dira, beraz, Urnietako plazan.



Biolin-jotzaileak, astearteko emanaldian. AIURRI

Ikasturte amaierako emanaldiak

Ikasturte amaierako kontzertu-sorta antolatu du Lourdes Iriondo musika eskolak egunotan. Joan den astelehenean hasita, hainbat instrumentuen jotzaileak (klarineteta, tronpeteta, perkusioa eta pianoa) beren saioak egin dituzte irakasleekin batera, Saroben.

Maiatzaren 28an eta ekainaren 1ean izango du jarraipena kontzertuen zikloak. Hain zuzen, maiatzaren 28an, ostegunarekin, musika tailerreko emanaldia izango da eta Antton Jauregik sortutako 'Pentagrama enea' ren aurkezpena izango da. Sarobeko bi saio horiek amaituta, ondoren, Sanba Badago taldeak emanaldia emango du San Juan plazan. Argazkian, astearteko biolin-jotzaileak: Ruben Agudo, Mikel Egia, Ane Urrutia, Indar Millan, Tomas Ruti (irakaslea), Joannes Sagarzazu eta Antton Jauregi. Ekainaren 1ean, berriz, perkusio emanaldia 17:30ean.

da 2015ean Urnietako Antzerki Tailerreko aktoreek taularatu zutela "Pentagrama Enea" ipuina, Aizpea Goenaga eginiko

egokitzapenean oinarrituta. Liburua, berriz, musikaren irakurketa prozesuarekin hasteko sekuentzia didaktikoa da.



Zuzendu zuen azken partidaren omendua zuten Garcia. AIURRI

Merezitako omenaldia Euskaldunako Andoni Garciari

Zortzi denboralditan futbol eskola, kadeteak eta ohorezko mailako jubenilak zuzendu ditu

Xabier Lasa ANDOAIN

Donostiako Vasconia taldearen aurka, Puyo futbol zelaian izan zen Andoni Garciarentzat azken partida. Jokalariak oroigarria eman zioten partiduaren hasieran; gero, ordea, ezin izan zioten garaipenaren bigarren oparia

eskaini, 4-1 galdu baitzuten. Garciairen senitartekoak ere agurrean izan ziren. Azken bi denboraldietan bere agindupean jokatu duten Ohorezko Jubenileko jokalariek eta Beñat Toronek eta Mikel Carredano kolaboratzaileek parte hartu zuten omenaldian.

Amaiera ankerra mailari eusteko azken partidaren

Oriokoren zelaian irabazi behar zuen Euskaldunak, Ohorezko Mailari eutsi nahi bazion. Kale edo bale, ez zegoen besterik. Eta, hala, 0-2 irabazten jarri ostean, 2-2ko berdinketarekin amaitu zen partida. Gainera, sailkapenean, Mutrikuk ere aurrea hartu zion. Hala, Ohorezko Gorengo Mailako esperientzia, urte bakarrekoa izan da. Partida nolakoa izan zen ikusita, kolpe handia jaso zuten Euskaldunako jokalariek, zuzendaritza-taldeko ki-deek eta zaletuek. Sailkapenari erreparatuta, Gorengo Mailara jaitsiko da 2026-2027. denboraldian. Azken jardunaldietan mailari eusteko lana gogotik egin dute urdiñek eta amaiera arte ametsa bizirik izan da.

SAILKAPENA, 34. JARDUNALDIA		
13 Amaiak Bat		37
14 Orioko		35
15 Mutriku		33
16 Euskalduna		32
17 Hernani		30
18 Deustu		24



Sari banaketa ekitaldia, Urnietan. ANDOAINGO

Txirrindularitza proba, Urnietako Idiazabal kalean

Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatu zuen, Urnietako Udalarekin lankidetzan

Erredakzioa URNIETA

Aurreko larunbatean txirrindulari kimu berriak lehiatu izan ziren Urnietako Idiazabal kalean. Andoaingo Txirrindulari Eskolaren zuzendaritzapean, ibilbide itxian egin zen benjamin, alebin eta infantil mailako lasterketa.

Sailkapena, Urnieta

26/05/23 Infantil mutilak
 1. Xahar Muñoa (Ampo)
 2. Andoitz Zabaleta (Ampo)
 3. Amets Ormaetxea (Ampo)
 Sari banaketa ekitaldian Liher Labaka urnietarrari herriko saria eman zioten.

AZKEN GUDA KANTXA

ERREMONTARI

2020

EKAINAK 1, ASTELEHENA

18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

LEHEN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA + 3. SETA, 8 TANTORA

GOIKOETXEA V · JUANENEA VS
EZKURRA II · AZPIROZ

BIGARREN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA + 3. SETA, 8 TANTORA

SEGUROLA · LARRAÑAGA VS
ALDABE · BARRENETXEA IV

Harpidedun
izatearen
abantailak

AIURRI

Laster zenbaki berria argitaratuko dugu!



Maialen eta Unai, Poxta Zahar Gazte Kuadrillen elkarteko kideak. AIURRI

"Jende berria ongiatorria da, gazteagoa edo helduagoa izan"

UNAI IRAOLA URIBARRENA, MAIALEN KORTAJARENA GARCIA POXTA ZAHAR

Gazte Kuadrillen elkarteko kideentzat eta euren belaunaldikideentzat, bereziki, herritik atera gabe jai-giroan murgiltzeko aukera aproposa dira Gazte Festak

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Ganean ditugu Gazte Festak, zein aldarte edo ilusioekin zaudete?

Unai Iraola Uribarrena. Uste dut herritarrak oso gogotsu daudela. Batez ere, aintzat hartuta

iazko Sanmielak ez zirela ospatu. Jendeak gogoa du herri-giroa eta parranda pixka bat egiteko, kontzertuak ikusteko...

Maialen Kortajarena Garcia. Bai, hori da. Gainera, uda laster da-

tor, eta guretzat udari hasiera emateko jaiak dira.

Zer moduzko ikasturtea izaten ari da antolakuntza eta lan aldetik?

M.K.G. Beste urteetan baino laguntza gehiago edukitzen ari

gara, baina, hala ere, gonbita zabaldu nahi diet gazteei bileretara etortzeko eta antolakuntzaren parte izateko.

U.I.U. Bai, aurten nahiko ondo ibili gara. Baina, Maialenek esan duen bezala, jende berria ongiatorria da, gazteak eta helduagoak direnak ere. Bestalde, orokorrean, aurtengo ikasturtean ondo joan dela esango nuke.

M.K.G. Bai, garaiz joan gara dena antolatzen.

Gazte festei begira, egitaraua dagoeneko lotu duzue, lan handi izan da egitaraua lotzea?

U.I.U. Urtero eskema antzekoa jarraitzen dugu. Ostegunean pintxo lehiaketarekin hasten gara, eta ostiralean hasiko litzateke egitarau mamitsua. Lehenengo, olinpiaden finala egingo dugu, gero afari tematikoa, eta azkenik, kontzertuak eta dj-ak egongo dira. Larunbatari dagokionez, beti bezala, herri bazkaria egingo dugu, horren ostean, txaranga eta dj-ak egongo dira. Azken urteotako ildoari eutsi diogu.

Pintxo lehiaketaren inguruan xehetasun gehiago emanago dituzue? Zein tabernak hartuko dute parte? Nola erabakiko da irabazlea?

M.K.G. Irabazlea parte hartzaileen bozken bidez hautatuko da. Tabernen kasuan, Denda Berritik hasiko gara, ondoren, Kantoia eta Frontoi tabernen txanda izango da, eta azkenik, Riojanosen amaituko dugu. 4 dira, guztira, parte-hartzaileak.

U.I.U. Bai irabazlea hautatzeko, banaka banaka joaten gara parte hartzaileei haien iritzia inguruan galdetzeraz, eta Maialenek aipatu duen moduan, bozka gehien dituenak irabazten du. Irabazleak, urtero garaikur bat jasotzen du.

M.K.G. Orain arte Kantoik irabazi du, ea aurten zer gertatzen den.

Olinpiaden ze balorazio egiten duzue?

U.I.U. Oso ona, egia esan. Parte hartzeari dagokionez, gorakada handi bat egon da. Adin tarte desberdinetako jendea animatu da eta, aurten, guztira, hamasei kuadrilla aritu dira. Guztira sei ostiraletan egin ditugu olinpiadak.

M.K.G. Bai, giro sanoa sortzen da. Ikusiko da finala ea zeinek irabazten duen, nahiko lehiatua egongo da. Hurrengo urteari begira, olinpiadei eutsioko diogulakoan gaude.

Larunbateko bazkarirako zenbat jende espero duzue?

M.K.G. 250 tikit jarri genituen salgai, eta 200 pertsona inguru etortzea espero da.

Zer dira Gazte Festak zuentzat eta herriarentzat?

U.I.U. Sanmielak direla herriko festa garrantzitsuenak, baina gazte festak beti gogoarekin hartzen ditugula; ikasturtea amaitzen delako, udari hasiera ematen diogulako, eguraldi onarekin ospatzen ditugulako... Giro ona sortzen da.

Gazte Festen atarian ze mezu zabaldu nahiko zenukete?

U.I.U. Festetan ondo pasatzea, eta urtero bezala, Poxta Zaharren sartzeko gonbita zabaltzea. Urtero saiatzen gara jende gaztea erakartzen, izan ere, adin tarte igo egin da, eta gazteenak animatu nahi ditugu antolakuntzara hurbiltzeko.

M.K.G. Hori da. Antolatutako ekintzetan jendeak parte hartzea eta denon artean ondo pasatzea, adina kontuan hartu gabe eta jende berria ezagutzeko irekita egonik.

Sanmielak begira, talde eragilea animatuta dago?

M.K.G. Bai. Txozna batzordean gauden eragileak urtero berdinak izaten gara, eta hor ere, nahi duenak parte hartu dezake. Sanmielak antolatzen hasi gara, izan ere, uda segituan dator, eta udan antolaketa lanetan murgiltzea zailagoa izaten da.

U.I.U. Iaz, festak egon ez zirenez, aurten denok dena emango dugula uste dut, eta antolakuntzan lan hobea egingo dugu. Dagoeneko azpi taldeak egin ditugu antolakuntza hori ondo bideratzeko, eta azken momentuan korrika ez ibiltzeko. Oso gogotsu gaude denak.

"PARTE HARTZEARI DAGOKIONEZ, GORAKADA HANDIA EGON DA OLINPIADETAN"

"SANMIELAK ANTOLATZEN HASI GARA ETA OSO GOGOTSU GAUDE DENAK"

GAZTE FESTAK URNIETAN

MAIATZAK 28

OSTEGUNA

18:00 Gazte Festen bezperan, pintxo lehiaketa antolatuta du Poxta Zaharrek. Kantoi tabernetatik abiatuko dira.

MAIATZAK 29

OSTIRALA

16:30-18:00 11-16 urtekoentzat zezen mekanikoa, Plazido Muxika plazan.

17:30 Gazte Olinpiaden finala.

18:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira, Plazido Muxikatik San Juan plazara.

19:00 Kantazaun, Etxeberri plazatik abiatuta.

19:30 Jaien hasierako txupinazoa, Egape Dantza Taldeko kideen eskutik.

19:50 Egape Dantza Taldearen emanaldia, plazan.

20:00 Burrumba elektotxaranga, plazatik abiatuta.

20:30-00:00 "Ai ama" erromeria, Etxeberri plazan. Edaria, musika eta janari postua egongo da.

21:00 Afari tematikoa, Jakutegin. Gaia: moda-estiloak.

23:00 Burutik, kontzertua.



Afari tropikala egin zuten, iaz. AIURRI

01:00 Komerik, erromeria.

03:00 DJ Aldana.

MAIATZAK 30

LARUNBATA

10:00 Diana, Txanbolin.

11:00 Dantzari txikiak San Juan plazan.

11:30-13:00 0-6 urtekoentzat Liburu txiki jaia, Jostaleku parkean.

11:30-13:00 5-15 urtekoentzat dardo txapelketa, Dardoka elkartearen.

12:30 Poteoa, Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00 Herri bazkaria, plazan, Poxta Zaharrek antolatuta.

16:30-23:00 16 urtetik gorakoentzat dardo txapelketa, Dardoka elkartearen.

18:00 "Eraitsi SL" kale antzerkia, Plazido Muxika plazan.

18:00 "Erremontari, herriz herri", frontoian.

18:00 Txintxarri txaranga.

18:00-19:30 DJ Osto, Idiazabal kalean.

19:30-21:00 / 23:00-01:00

Erromeria, Lisker.

01:00 Selektah Stepi eta lagunak.

03:00 DJ LLL.

MAIATZAK 31

IGANDEA

10:00 Diana, Txanbolin.

11:00-13:00 Zirku-tailerra, Egape Ikastolan. 2 eta 5 urteko haurrak heldu baten laguntza beharko du.

11:00-13:30 Antzara Joko Erraldoia, Egapen.

11:30 Pilotako finalak, Kontzejupean.

12:45 Musika eta dantza emanaldia, San Juan Plazan.

17:00 Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira, San Juan plazatik Plazido Muxika plazara.

18:00 "Egun on, sikiera!", Zirika Zirkus. Dantzak, jolasak eta animazioa Plazido Muxika plazan.

Trafikoa

- San Juan plaza: ostiraletik (17:00) igande gauera (21:00) itxita.
- Idiazabal kalea: larunbatean, 17:00etatik 21:00ak arte. Mozketak iraun bitartean bi autobus geltoki: Denda Berri eta Errotegi-Langarda biribilgunea.



ZIRIKA ZIRKUS

Zirika Zirkus

Zirika Zirkus konpainiak "Egun on, Sikiera" ikuskizuna aurkeztuko du Urnietan. Aurrerapena: "Prest daude, ikuskizuna berehala hasiko da. Koreografiak, jolasak, asmakizunak, zirkoa, kantak... dena prest dute. Zirkoz eta dantzaz blai dagoen numero batekin hasiko dira. Baina hasi eta berehala arazo batekin topo egin dute, komunikazio arazo batekin..."



POXTA ZAHAR

Olinpiadak

Ostiral arratsaldean Gazte Olinpiaden azken txanpa jokatuko da. Aurten, bereziki, partaidetza handia izan da eta, ondorioz, giro berezia sortu da.



NO BORDER REGGAE

Selektah Stepi eta lagunak

Reggae musika eta haren aldaeretan aski trebea eta ezaguna da Selektah Stepi disko-jartzailea. Hogeitazero urte atzera, Bad Sound System mugimenduko kide izan zen eta, geroztik, Euskal Herrian barrena saio ugari eman ditu. Lagunak hartuta, jai-eremua ospakizun bilakatuko da larunbat gauean. Haren atzetik LLL disko-jartzailearen txanda iritsiko da.



AGENDA

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Lebiton

"Lebiton eta gure pertsonaiak" erakusketa.

Bastero. Ohiko ordutegia.
Azken eguna: ekainak 30.

MUSIKA

ANDOAIN Joana Ortega

Bastero Kafe zikloa: "Goizeko Izarrak" izeneko emanaldia.

19:30, Bastero.
Maiatzak 29, ostirala.

URNIETA Musika Eskola

Lourdes Iriondo Musika Eskolaren matrikulazio-epea hilaren 29an amaituko da. Ikasturte honetako amaierako kontzertuak:

Maiatzak 28, osteguna:
17:30 Musika-tailerra eta "Pentagrama Enea", aurkezpena.
19:00 "Salsa Badago", plazan.
Ekainak 1, astelehena:
17:30 Perkusio emanaldia.
Sarobe antzokia.

URNIETA Kontzertua

Aiztondo Abesbatzak Mater Amabilis kontzertua eskainiko du. Aleksandra Gladysheva sopranoa eta Iñaki Gezala piano-jotzailea bidelagun izango ditu Astigarragako abesbatzak.

20:00, San Miguel eliza.
Maiatzak 30, larunbata.

ANDOAIN Sol Band Gaza

17:00etan, pintxoak, henna postua eta artikulua solidarioen salmenta Plaza Morean. Ondoren, Palestinako musika taldea.

18:30, Bastero.
Ekainak 5, ostirala.

BILKURAK

ANDOAIN Palestina

Global Sumud Flotillaren aldeko elkarretaratzea deitu dute.

20:00, Kaimuturra.
Maiatzak 28, osteguna.

ANDOAIN Pentsiodunak

Andoaingo Pentsiodunen Mugimenduko kideek deituta.

11:00, Goikoplaza.
Ekainak 8, astelehena.




Ostiralean zabalduko dute ur-parkea. AIURRI

ANDOAIN Ur-parkearen irekiera

Etxeberrieta auzoko Miranda pasealekuan kokatuta, beroaldiak arintzeko baliagarria da ur-parkea. "Dei egiten diegu herritarrei ingurunea zaindu eta errespetatzeko".

Maiatzaren 29tik aurrera.



Joanes Illarregi eta Aitor Mendiluze ariko dira kantuan. AIURRI

ANDOAIN Bertso-afaria, Ontza elkarte

Txartelak salgai daude Elizondo tabernan eta Andoni Etxeberria harategian. Erosteke azken eguna ekainaren 3a izango da, Ontza elkarte, iluntzeko 19:00tatik gaueko 21:00etara.

Ekainak 5, ostirala. 20:30, Ontza elkarte. 30 euro.

EUSKARA

ANDOAIN Euskara plana

Plan berria diseinatzeko bi saio ireki antolatuta ditu Udalak, ekainaren 2an eta 17an.

17:30, Bastero Kulturunea.
Ekainak 2, asteartea.

AXERI-DANTZA

ANDOAIN Entseguak

Axeri-dantza prestatzeko entseguak. Entseguak amaituta, fandangoa eta arin-arina eta zortzikoa saio irekiak.

19:00-20:00, Ondarreta.
Ekainak 8, 10, 16, 18 eta 22.

MERKATU TXIKIA

PISUKIDE BILA

IRUN

Iruñako pisu baterako neska euskaldun bila gabilta:
665 719 827.

IRAGARKIAK JARTZEKO BIDEAK

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537 • 943 300 732
ARANTZIBIA 4-5, BEHEA. ANDOAIN

ZORION-AGURRAK

diseinua@aiurri.eus | 619 163 537 • 943 300 732
ARANTZIBIA 4-5, BEHEA. ANDOAIN

ZORION-AGURRAK




ANDOAIN
Oinatz Zatarain
Korrotxano
Maiatzaren 23an 15 urte bete zituen. Zorionak etxeko guztien partetik, baita Unax eta Anerren partetik ere.



ANDOAIN
Joxe Mari Ollakarizketa
Ollakarizketa
Ekainaren 2an urteak beteko ditu. Zorionak!!! Ondo-ondo ospatu. Muxu handi bat etxeko partez.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Las ovejas detective

Lar., 30. 19:30.

Igandea, 31. 17:00, 19:30.

Astelehena, 1. 17:00, 19:30.

Cada día nace un listo

Lar., 6. 19:30.

Igandea, 7. 19:30.

Astelehena, 8. 17:00, 19:30.

Shrek

Lar., 6. 17:00.

Ig. 7. 17:00.



SINOPSIS

Las ovejas detective

Zuzendariak: Kyle Balda. **Aktoreak:** Hugh Jackman, Emma Thompson, Nicholas Braun, Nicholas Galitzine... **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 109 m.



Gauero, artzain batek hilketa misteriotso bat irakurtzen du ozenki, ardiek uler dezaketaren itxurak eginez. Hilda aurkitzen dutenean, ardiak berehala konturatzen dira hilketa bat izan dela, eta uste dute badakitela nola konpondu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA